

EAEko gazteen % 77 heriotza-zigorraren aurka daude


Heriotza-zigorraren alde dauden gazteen ehunekoa, txikia izan arren, handitu egin da azken urteotan

Urriaren 10a [Heriotza Zigorraren aurkako Mundu Eguna](#) dela-eta, EAEko gazteek heriotza-zigorraren aurrean duten jarrera aztertu du [Gazteen Euskal Behatokiak](#).


Horretarako, Gazteen Euskal Behatokiak berak 2012ko martxoan egindako inkesta bat hartu da oinarri. Inkesta EAEko 15 eta 29 urte bitarteko 1500 gazteri egin zitzaien.

Inkestaren emaitzek adierazten dutenez, EAEko gazteen % 77 heriotza-zigorraren aurka daude. % 16k, ordea, alde daudela diote. % 7k ez dute iritzirik eman gaiari buruz.

Azken urteotako joera ikusita, antzeman daiteke heriotza-zigorraren alde dauden gazteen ehunekoak gora egin duela: % 9 zen 2008an eta % 16 da 2012an.



[Juventud en España 2012](#) txostenean Estatu osoan jasotako datuen arabera, heriotza-zigorraren aldekoen ehunekoak inoiz ez bezain altuak dira Espainiako gazteen artean, % 43, alegia, nahiz eta galdera egiterakoan baldintza bat jarri: "delitu oso larriak egin dituzten pertsonentzat".



Gazteen sexuak edo adinak ez du eraginik heriotza-zigorraren alde edo kontra egotean. Ikasketa-mailak, ordea, badu eraginik. Hain zuzen ere, amaitutako ikasketen maila zenbat eta altuagoa izan, behera egiten du heriotza-zigorraren aldeko jarrerak.

Nork bere burua ideologikoki nola definitzen duen ere esanguratsua da. Euren burua eskuindar edo zentrotzat jotzen duten gazteek heriotza-zigorraren aldeko joera handiagoa dute euren burua ezkertiarzat dutenek baino. Nolanahi ere, heriotza-zigorraren aldeko jarrerak gutxiengoarenak dira, kasu guztietan.

HERIOTZA-ZIGORRAREN AURREAN IZANDAKO JARRERA, AMAITUTAKO IKASKETEN ARABERA ETA EZKER-ESKUIN ARDATZ IDEOLOGIKOAN NOLA KOKATZEN DIREN ARABERA (%)								
AMAITUTAKO IKASKETAK	EZKER-ESKUIN ARDATZ IDEOLOGIKOA	TOTAL	AMAITUTAKO IKASKETAK			EZKER-ESKUIN ARDATZ IDEOLOGIKOA		
			Derrigorrezkoak	Derrigorrezkoen ondoko bigarren mailakoak	Goi-mailakoak	Ezkerra	Eskuina + Zentroa	Ed/Ee
(%)								
Alde		16	20	14	12	13	20	17
Kontra		77	73	77	81	82	70	74
Ed/Ee		8	7	9	7	5	10	9
EHUNEKOEN GUZTIRA		100	100	100	100	100	100	100

Datuak ikusita, badirudi beharrezkoa dela gazteen hezkuntzan tolerantzia eta balio demokratikoak bultzatzen jarraitzea.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

